

BERRIGARA


0. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1996, abenduak 20

JAIME MARTIN
KADETE MAILAKO
ESPAINIAKO KARATE
TXAPELDUNA

Kirol gogorra

Karatea

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)

Tfnok: 70 05 96

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.

Gabonetako kontzertua

*Bergarako Udal Musika Banda
Aritzeta Abesbatza
Bergarako Orkestra Sinfonikoa
Bergarako Orfeoia*

UDAL PILOTALEKUAN
ABENDUAREN 21EAN
GAUEKO 10:30ETAN



Musika Eskola

Bergarako Udala



ARRASATE ERDIALDEKO
MERKATAL ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

Arrasate erdian,
Deba Garaiko merkatalgunerik
handiengan, erosketak izen propioa du.



Azaroaren 18tik
urtarrilaren 4ra arte
Arrasate erdiko 100
komertzio eta zerbitzuek
AUTO BAT dohainik
lortzeko aukera
ematen dizute.
Etorri eta egiazta ezazu!!!

Erdialdea bisitatzen duzunean
aparkalekua erabil ezazu.
Denok eskertuko dugu.

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxe: 76 08 19

Argitaratzailea:

UARDUN Elkarteak.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Mikel Elkorobereibar

Aitziber Azkondo

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola

Maripi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkorobereibar

Alex Labaien

Komikiak:

Bitor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Tranxangorri taldea

Tirada:

~ 200 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

VIRGINIA IMAZ

Oihulari Klown taldekoa

- El Salvadorrerako proiektu bat omen duzue eskuartean...

- Trokolo eta Zingili-Zangala taldeekin batera, "Mugaz gairdiko pailazoan" izenpean, lankidetzan proiektu bat egin nahi dugu "Las Dignas" El Salvadorren lanean ari den gobernuz kanpoko erakundearekin. "Mugaz gairdiko pailazoak" gobernuz kanpoko erakundea da eta bere helburu nagusia inongo arraza, sexu, erlijio sinismen edo ideologia politikoren bazterketarik gabe, gatazka egoera edo garapen arazoak dituzten eskualdetako biztanlegoaren egoera psikologikoa suspertzea da. Umorea terapia gisara aldarrikatzen dugu eta ez solik umeentzat, baizik gazte eta baita helduentzat ere.



- Noiz joango zarete El Salvadorrera?

- Uste dut otsail aldera joko dugula El Salvadorrera. Bien bitartean proiektu honen aldeko antzerki jaialdia antolatuko ditugu eta Bergaran, datorren egunean, hilaren 27an izango gara Zabalotegiko aretoan. Ozeano zabala zeharka lezakeen irriparra marrazten has gaitezke. Gonbidatuta zaudete.

"Mugaz gairdiko pailazoan erakundearekin El Salvadorrerako proiektu bat daukagu"

I T U R R I O N E T I K

Takolo, Pirritx eta Purrutx pailazoak eta Gozategi anaiak Karnabaletan

Udaleko Kultur Zerbitzua hasi da dagoeneko Karnabaletako programa prestatzen. Aurten, Aratuzteak otsailaren 7tik 11ra bitartean ospatuko dira Bergaran eta Udalak badu egitarauaren zirriborroa. Karnabal domekan, otsailaren 9an, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoan ikuskizuna izango da Frontoian eta jarraian Tirri-Tarra fanfarrearen kalejira izango da. Martitzenerako, berriz, karaokea, sardinaren entierroa edo Gozategi anaiekin dantzaldia iragarri da. Bestalde, Udalak konbokatutako kartel lehiaketara oraindik ez da lanik aurkeztu. Epea abenduaren 31n bukatuko da eta irabazleak 50.000 pezeta eskuratuko ditu.

E S A N
D U T E

"Ekimen izeneko plangintzarekin, finantzazio aldetik oinarri sendoa duten proiektu industrialak bultzatu nahi dira. Errekurtso propio minimo batzuk esijituko zaizkie eta, enpleguen sorrera bultzatu nahirik, gehienezko dirulaguntza 5 milioi pezetakoa izango da, inbertsioen bolumena kontutan hartzeke"

JABIER RETEGI
Industria
Sailburua
EL DIARIO
VASCO

"Zestoan egin berri den kongresoan ikusi dugun bezala, gaur egungo jubilatuen funtzio soziala zein den asmatu behar dugu. Gero eta gehiago gara, jendea lehen baino lehenago jubilatzen delako. Gainera, jende honek izugarriko kapazitatea dauka eta oraindik gaurko gizartean lan interesgarria egin dezake"

TOMASA ZABALETA
Jubilatuetao presidentea
EUSKADI
IRRATIA


**TRAINSPOTTING**

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**SARGENTO BILKO**

Domeka: 11:30 (Matinala).

**LA CAMIONETA**

Eguastena: 17:00, 19:30, 22:15.

Eguena: 19:30.

Zinea

▼▼ **Danny Boyle** zuzendariaren (A tumba abiarta) filme honek izugarritzako arrakasta lortu du munduan zehar. Edimburgo Eskoziako hiriburuan kokatuta, *Mark Renton* (**Ewan McGregor**) eta bere lagunak gorabeherak azaltzen zaizkigu. Kuadrila xelebre honek ikuspuntu oso bereziak dauzka bizitzako hainbat aspekturen aurrean...

▼▼ **Steve Martin** komiko iparamerikarrak protagonizatutako komedia berri bat. *Bilko* sarjentuak (**Martin**) ejerzitoko bere lagunei era guztietako dibersioak eskeintzeko ardura dauka. *Bilkok Hall* koronelaren (**Dan Aykroyd**) konplizitatea izango du baina egoera erabat aldatuko da Fort Baxterera *Thorn* Nagusia (**Phil Hartman**) heldzen denean.

▼▼ **Stephen Frears** zuzendariak (*Cafe irlandesa*) berriz ere Irlandan kokatu du bere azken filmea. Langabezia geratu ondoren, *Bimbok* (**Donal O'Kelly**) hanburgesak eta horrelakoak saltzeko kamioneta bat erosteko ideia izango du. Handik gutxira, *Bimbok Larry* bere lagunminari (**Colm Meaney**) bere sozioa izateko proposamena luzatu eta aldaketak etorriko dira...

Deiak

▼ **1975ean** jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitako enbarkaria abenduaren 28an Antxon jatorriarekin. Izen-ematea (1.000 pezeta deponitua) Antxonin bertan astelehena baino lehen.

▼ **Pol-Poleko** gazte sailak Aitzakorria mendira iragarri du abenduaren 31rako. Izen-ematea Pol-Polen.

▼ **Juan Jose Altuna**ren margo erakusketa Arrasateko Harresiaretoan (Iturriotz, 23) urtarrilaren 7ra arte. Astebarnean 6etatik 8etara eta zapatu eta jaiegunetan 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.

▼ **Fernando Arenaza**ren margo erakusketa Nahikari tabernan.

Ogia▼ **Domeka 22:** Mizpildi.**FARMAZIAK**▼ **Eguakitza 20:** Guallar.▼ **Zapatua 21:** Estella.▼ **Domeka 22:** Estella.▼ **Astelehena 23:** Mozos.▼ **Martitzena 24:** Camacho.▼ **Eguaztena 25:** Puy.▼ **Eguena 26:** Guallar.**GISASOLA** BURDINAKI DENDA**"Erratzu"**

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

Gabonetako kontzertua

Herriko abesbatz eta musika taldeak zapatuan frontoian

Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Orkesta Sinfonikoak eta Orfeoia Gabonetako kontzertua eskeiniko dute bihar, zapatua, gaueko 10 t'erdietatik aurrera Frontoian. Lehenbizi Banda izango da eskenatokian eta, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, Sparkeren bi lan eskeiniko ditu, "Concert prelude" eta "Orient Express" hain zuzen ere. Alfredo Gonzalezen hitzetan, "kontzertuko sorpresetako bat Orient Express izenburuko lana izan daiteke, bertan, autoreak, Orient Express trenaren irteera adierazi nahi izan duelako. Trenak Londreseko Victoria geltoikitik Veneziara egiten zuten ibilbidea jasotzen da bertan eta oso kuriosoa da trenaren zaratak eta primeran bereizten direlako".

Bandaren ostean, Izaskun Labaienek zuzentzen duen Aritzeta abesbatzak "Cowboy Carol" (Cecil Broodhurst), "Paikun" (Alfred Herzog), "Maria" (Bernstein, pianoan Xabier Labaien izango da) eta "Belengo estalpe txiki batean" (Miguel Glez. Bastida) abestuko ditu.



Udazken Kulturalari amaiera ematen dion ekitaldia da Gabonetako kontzertua.

Ondoren, Orkesta Sinfonikoak G. Jimenezen "La boda de Luis Alfonso" izenburuko lana joko du eta jarraian Orfeoia, David Azurzak zuzendurik, honako lanak interpreta-tuko ditu: "Dios te salve" (David Azurza), "Orra Mari Domingi" (Usandizaga), "The Lord is my shepherd" (Rutter, oboea Jesus Mari Arriaran eta pianoan Iñigo Alberdi izango dira), "Jesus Bleibet Meine Freude" (Johann Sebastian Bach) eta, azkenik, Javier Bello Porturen "Fe-

lix Maria de Samaniego en Bergara" izenburuko lana. Azken hau Bergarako Orfeoiantzat bereziki idatzitako lana da eta bihar-ko kontzertuan estrainatuko da. Orfeoiarekin batera honako instrumentistak arituko dira: J.A. Ordoñana (flauta), J.M. Arriaran (oboea), M.J. Juaristi (klarinetea), M.A. Maniega (tronpeta), A. Lopez eta M. Markiegi (tronboiak), I. Crespo, E. Txurruka eta I. Olabarria (bibolinak), A. Txurruka (biola) eta I. Alvarez eta A. Egidazu

(biolontxeloak).

kontzertuari amaiera emateko, Haendelen "A-luya" eta "Adeste fideles" Gabon kanta ezaguna eskeiniko dira. Alfredo Gonzalezek adierazi digunez, "aurten kontzertu arinago bat egin nahi izan dugu, bestela gebiegi luzatzeko arriskua egoten da".

Kontzertuak ordu t'erdia inguruko iraupena izango du eta sarrerak 800 eta 500 pezetan (Gazte Txartela dutenentzat eta jubilatuentzat) salduko dira.



gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.

Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Eskarrikasko Agustin

Ez dugu elkar ezagutzen, edo hobeto esanda, ez dugu bata bestearekin berbarik egin. Hala ere, eta ni ez izan arren oso errealezalea, betidanik mirestu zaitut zure nortasun apalagatik eta zure euskaltzaletasunagatik.

Zuri egindako elkarrizketak komunikabide ezberdinetan, euskara hutsean entzun-ikusit ditut gehienetan, eta hori eskertzekoa da zu bezalako pertsona ospetsu batek beste jendearengan duen eragin kutsakorragatik, batez ere neska-mutikoengan. Hau guztia gutxi balitz, aitortu behar dizut Egin egunkarian Presoak Euskal Herriratzeke Bilbon egin zen manifestaldirako zure atxekimendua azaltzeak ikaragarri poztu ninduela. Ziur nago Agustin, zure jarrera ausarta horrekin preso guztien bihotzak bat-batean irabazi zenituela. Alkiza Bilboko jokalaria donostiarrak gauza bera egin zuela ikusirik, pentsatzen nabil zein polita izango zen Iribar eta Kortabarriaren garaian bezala, herri aldarrikapena eta kirola uztartzea. Lehen horiek Ikurriñaren alde azaldu ziren bezala, orain zuek presoaren eskubideen alde azalduz, eskakizun honek, lehen Ikurriña legezatzeara bezala indar abertzaleen arteko kontsentsua lortu baitu.

JOSE LUIS LOIDI "ROSSLI"

Barkamenak

Jam aretoko arduradunek barkamenak eskatu nahi dizkie zapatuan diskotekara joandako ikusleei izandako antolaketa akatsengatik. Diskotekak kontratatutako artistak berandu iritsi ziren, 8etan etortzekoak ziren, eta 11etan heldu ziren. Hori dela eta arazo batzuk izan ziren sarrean. Era berean, bertara joan zirenei eskerrak eman nahi dizkiegu emandako laguntzagatik.

JAM ARETOKO ARDURADUNAK

Gartzelatik

Kaixo antzuolarrok!

Azkenaldi honetan "acercamiento" a dela eta ez dela, nahikoa berriketa darabilte politikoek. Dispersioa erabat ilegala dela guztiok dakigu. Aldi berean, dispersioa presoek eta gure senideei jartzen zaigun zigor erantsi bat dela esatea ez dut ezer berririk esaten.

Dispersio hitza entzuten dugunean, lehen-dabizi burura etortzen zaiguna etxetik gartzelara dagoen distantzia da. Hala ere, nik dispersioaren beste ikuspegi bat eman nahi nuke. Kontutan hartu behar da gartzela barruan ere dispersioa aplikatzen digutela; hemen, adibidez, ia 30 euskaldun egon arren, guztiok modulo ezberdinetan sakabanatuta gaugate, modulo batetik bestera bizi baldintzetan sekulako ezberdintasunak ematen direlarik eta gainera gutariko batzuk bakarrik gaude.

Bestalde, dispersioaren ondorioz gartzelari-ek askoz errezago zapaltzen dituzte gure eskubideak. Esaten dudan hau egiaztatzeko hona hemen hiru adibide:

- Telefonoz ez digute euskaraz hitzegiten zuten. Orain dela egun batzuk gure moduloko kide bati euskaraz hitzegiten zegoelako deia moztu zitoten eta aislamenduko zeldetara eraman zuten. Epailaren aurrean behin eta berriz salatu izan dugu egoera hau, baina epaileek legea aplikatu aurretik legea norentzako aplikatzen duen begiratzen duenez, beti gure kontrako postura hartzen du. Hau dela eta, pentsatzen dugu, etxekoe-kin telefonoz erderaz egitea baino hobea dela telefonoa ez erabiltzea. Horrela zuzendaritzaren aurkako jarrera azaltzen dugularik.

- Orain dela hilabete mordo bat dentistarengana joan ginen, baina hemengo dentistak egin beharrekoa ezin zuenez egin, esan zigun kanpoko dentista bat ekartzeko aukera genuela. Guk legeak esaten duen bezala kanpoko dentista bat ekartzea eskatu genuen, baina "Dirección Gene-

ral de Instituciones Penitenciarias"ek ukatu egin digu dentista. Epailaren aurrean gertaturikoa salatuta daukagu, baina oraindik kasurik ere ez digute egin.

- Moduloan ez daukagu inolako aktibitate edo kurtsillorik. Egun guztian zehar gora begira egon beharrean gure kontura eskulanak egiten saiatzen gara, baina ia ez digute materialik uzten. Bestalde, polikiroldegira astean ordu bat joateko aukera dugun arren, gure kide batzuek ez dietenez joaten uzten, elkartasun bezala gu ere ez gara joaten. Hau ere epailaren aurrean salatuta daukagu, baina ohiturari jarraituz, gure epaile jaunak ez digu kasurik ere egiten.

Hauk, hemen egunero gertatzen denaren adibide batzuk besterik ez dira izan. Ez noa gehiago luzatzera, zeren eta hemen barruan gertatzen diren eskubide ukapen guztiak kontatzen hasi ezker, Quijoteren liburua nire eskutitzaren ondoan txikia geldituko litzateke.

Eskutitz honekin dispersioaren beste atala bat erakutsi nahi izan dizuet, dispersioa ez baita bakarrik kilometro asunto bat. Arazoa ez da gu Euskal Herrira kilometro batzuk gerturatzearekin konpontzen. Euskal Herritik kilometro batzuk gertuago egon arren, gartzela barruan dispersioarekin jarraitu ezker, giza eskubideak berdin zapalduko dituzte. Beraz, "acercamiento" hitza beste gauza batzuetarako utzi eta inoiz baino ozenago esan dezagun: Euskal presoak Euskal Herrira!

Besterik gabe, agur bero bat bidaltzen dizuet Españatik eta mila esker guztioi uneoro erakusten duzuen elkartasunagatik.

Bestarkada handi bat zuon herritar, Patxi.

PATXI OLABARRIA

Tiira biraka



**Zapelaitz
motozale elkarteak**

Zapelaitz motozale elkarteak urteko azken irteera antolatu du iganderako, hilak 22. Irteera goizeko 9:30etan izango da Zapelaitz tabernatik eta partaideek 530 kilometro egingo dituzte. Zapelaitz elkarteak motozale guztiei parte hartzeko deia egiten die.

**Senideak
enkartelada**

Senideak elkarteak dei egiten du martitzenean, hilak 24, arratsaldeko 7etatik aurrera plazan egingo den enkarteladan parte hartzeko.

**Kontzertua
Pol-Pol tabernan**


Mal de ojo taldearen kontzertua izango da gaur, eguakitzan, 11etatik aurrera, Pol-Polen.

Mariskada

AEKko mariskadako boletoak salgai daude herriko tabernetan. Zozketa Gabón gauean 8etan egingo da plazan.

HILDAKOAK
Aste honetan ez dugu inor hil denik jaso.

JAIOTAKOAK
Mireia Arana Fernandez
Abenduak 5.
Marina Ortiz Hervas
Abenduak 10.



laz egin ziren konponketa lanetan, errebotea egin zen frontoian. Orain, atzerago eramango da.

**Udal Pilotalekuko paretak konpondu
eta errebotea atzeratuko dira**

Udan, Bergarako pilota denboraldiko etenaldia aprobetxatuz, hainbat hobekuntza lan egingo dira Udal Pilotalekuan. Ezkerreko paretan, frontisean eta errebotean hobekuntzak egiteko asmoa dago. Ezker paretan eta frontisan, azken urteetan hainbat aldiz pintatu dira baina nahiko irregular daude eta pilotak behar bezala irten daitezten, bi paretak raseatu eta berriz pintatu egingo dira. Era berean, errebotea metro bat edo atzeratuko da kantxa haunditzeko. Orain arte pilota biziek arazoak

eman dizkiete pilotariei, uste baino errezagoa baitzen pilota errebotera bidaltzea. Oraindik ezin da jakin lanek ze kostu izango duten, baina Udalak ezker paretan hobetzeko iaz eskatutako aurrekontua 2 milioi ingurukoa zen.

Gogoratu dezagun, iaz hainbat berrikuntza lan egin zirela Udal Pilotalekuan. Hain zuzen ere, ekainetik abendura bitartean itxita egon zen frontoia lanak zirela eta. Anselmo Inurrategiren proiektuak 50 milioi inguruko aurrekontua izan zuen eta, besteak beste, alda-

gela berriak, errebotea, taberna berria eta larrialdi irteerak egin ziren. Era berean, galdara gela berria egin eta kalefakzio sistema aldatu egin zen Udal Pilotalekuan. Pareta eta frontisa ez ziren hobetu, baina pilotalekua berdez margoitu zen pilota partiduak telebistan eman ahal izateko.

Orain egin nahi diren hobekuntzak Asegarcek eta Udalak sinatuko duten akordioari begira egin nahi dira. Hitzarmen horren arabera, Asegarcek 5 urterako izango luke Udal Pilotalekuan partidu profesionalak antolatzeko ardura.

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

GURIDI altzariak
Era guztietako altzariak
Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

BEREZITASUNAK:
BIZKOTXOAK
ERRELENOAK
TOSTOIAK
MUJIKAZOZOTEGIA
Artekale, 3 BERGARA
☎ 76 10 34

Taun-Taunen emanaldia Antzuolan

Taun-Taun txotxongilo taldeak "Ubu Babel" bere azken lanaren emanaldia eskeiniko du zapatuan, hilak 21, gaueko 10etan Antzuolako zine aretoan.

Borondate oneko kanpaina

Pol-Pol mendizale taldeak eta Gorla elkarteak XXV. Borondate oneko kanpaina antolatu dute Gabon gauerako. Azken 25 urteotan, Gabon gauean, elkarteetako sokorrismo saileko kideak Bergara eta Durango arteko bidea zaintzen izan dira beharra izan dutenei laguntza eskeiniz. Kanpaina honetan parte hartzeko interesa dutenek Pol-Poleko bulegoetan eman dezakete izena.

Aratuztetako kartel lehiaketa

Udalak Aratuzteetarako deitutako kartel lehiaketara lanak entregatzeko epea abenduaren 31n bukatuko da. Argibideak 77 91 60 telefono zenbakian.

Presoen aldeko Olentzeroa Antzuolan

Amnistia Batzordeak antolatuta, Presoen aldeko Olentzeroa egingo da Antzuolan martitzenean, hilak 24, arratsaldeko 5:15etatik aurrera Antzuolako Plazatik.

Amodiozko gutunen lehiaketa

Jardunek antolatutako *Amodiozko Gutunen V. Berrigara Lehiaketara* lanak entregatzeko epea urtarrilaren 17ra arte izango da zabalik. Argibideak 76 36 61 edo 76 08 19 telefonoetan.



Casa Agirrekoa izan da politena, bai epaimahai ofizialarentzat eta baita herritarrentzat.

Casa Agirre Eskaparate lehiaketako aurtengo irabazlea

Bigarren Kanela eta hirugarren Jauja sailkatu dira

Bidekurutzetako Casa Agirre jantxidenda izan da Udaleko Kultur Zerbitzuak antolatutako Eskaparate lehiaketako aurtengo irabazlea. Bigarren saria Kanela oparidendak lortu du eta hirugarren tokian, berriz, Jauja kirolenda sailkatu da. Era berean, Casa Agirre Bedelkar dendarien elkarteak antolatutako bozketa popularrean ere nagusitu da. Iaz bezala, komertzio berak irabazi ditu bi sariak, joan zen urtean Kanelak irabazi baitzituen bi sariak.

Eskaparate lehiaketako seigarren edizio honetan herriko 23 komertzio hartu dute parte eta epaimahaian Bedelkar, Beart herriko artisten elkarte eta Gipuzkoako Merkatal Ganbarako ordezkariak

izan dira. Epaimahaiak lan zaila izan du saridunak aukeratzeko orduan, izan ere partaideen maila altua goraipatu baitu. Era berean, lehiaketara aurkeztu ez direnen artean eskaparate aipagarriak daudela ikusi zuten epaimahaiko kideek. Eskaparatea abenduaren 6tik 18ra bitartean ikusgai egon behar izateak bat baino gehiago atzera botako zuen.

Sari banaketa biharko Gabonetako kontzertuan egingo da. Agirrek 60.000 pezeta eta trofeoa jasoko du, Kanelak 30.000 pezeta eta Jaujak, berriz, 15.000. Bestalde, Bedelkarrek antolatutako bozketan parte hartu zutenen artean Ramon Elgarrestari 10.000 pezetako erosketa bonoa tokatu zaio.

Deco-Textil

ZANGITU

Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 **BERGARA**
☎ 76 12 31

Kapirixo eremu megalitiarrak seinalizatzen hasiko da

Hemendik pare bat hilabetera amaituko dira lanak

Kapirixo elkartearen batzar orokorra izan zen joan zen eguenean UNEDen. Bertan, besteak beste, orain arte egindako lanak eta, etorkizunerako asmoak izan ziren aztergai.

Kapirixoko kideek egindako lanen artean Oñatin egiten ari den tresna zaharren bilketa (100 bat fitxa jasota daude dagoeneko) edo Elosu inguruko eremu megalitiarraren seinalizazioa aipatu ziren. Kapirixokoek urtebete inguru eman dute, domekero, trikuharriak garbitzeko lanetan eta hemendik pare bat hilabetera lanak amaitzea espero da. Udalak, Bergara aldean, 8 panel jarriko ditu berehala, bertan trikuharriak zer diren, noizkoak diren edo zertarako balio duten a-

zalduz. Era berean Aranzadi Elkarteko monolitoa eta panel esplikatiiboak (Karakaten, Santutxun eta Gaztelu-gainen) jarriko dira.

Bestalde, Kapirixok Arrasateko San Juan elizan egiten ari diren berritze lanak (momentuan geldirik daude) jarraitzeko asmoa dauka, Kapirixokoak ez baitzeuden ados hasieran egindako lanekin. Irteerak antolatzen ere jarraituko dute eta Kapirixoren asmoen artean Bergarako ondare industrialala (bisita gidatuekin), nekazal giroa edota auzotako ezaugarriak (alderdi turistiko eta komertziala lotuz) jakitera ematea leudeke.

Gaur egun 138 bazkide dira Kapirixon eta gehienak (68 lagun) bergararrak dira.



Kapirixoko kideek bailarako ondarea zaintzen jarraitzeko asmoa daukate.

Shotokan karatea

Datorren zapatuan, hilak 28, Shotokan karate erakustaldia izango da Kiroldegian goizeko 11etatik aurrera. 5. Dam-a duen karate maisu batekin batera, Bergarako hainbat karateka izango dira bertan. Udal Kirol Zerbitzuak eta Joxean Iñarrak antolatzen dute.

Kirol monitoreentzako ikastaroa Bergaran

Kirola Euskaraz programaren barruan, Eskola Kiroleko monitoreentzako ikastaroa izango da Bergarako Kultur Etxean urtarrilaren 2an eta 3an, goizeko 9:30etatik 13:30etara. Prezioa 500 pezetakoa izango da Deba Bailarakoentzat eta gainontzekoek 1.000 pezeta ordaindu beharko dituzte. Izen-ematea abenduaren 24a baino lehen egin beharko da Udaleko Kirol Zerbitzuan. Argibideak 77 91 35 telefonoan.

Irala zineko proiektua atzeratu

Irala zine aretoko jabeek Iralako lursailean joango den eraikuntzaren proiektua aurkezteko 15 eguneko luzapena eskatu dute eta beraz proiektu definitiboa ez da Gabon osterarte ezagutuko.

Beartekoak Martokoko eskoletara

Udalak Martoko eskola zaharrak Beart herriko artisten elkarteari lagatzeko erabakia hartu duu. Beartek behin eta berriz azpimarratu du lokal baten premia. Ikasleak Martokotik beste norabait eraman ondoren, herriko artistak bertara joango dira.

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82

KIRIBILT XO
ILEAIPAINDEGIA

Era guztiatoko marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...


San Lorenzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

Kabia TABERNA-ERRETEGIA

Eguneko menua.
Karta (2.000-3.500 pza. artean).
Okela eta arraina parrilan (enkarguz).
Pintxoak, kazolatxoak eta bokadiloak.

Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08

Erregeak, musika, kirola eta zinea Gabonetako izarrak



23 Astelehena

Ur jolasak 10:30etatik 13:00etara Agorrosingo igerilekuetan 14 urtetik beherakoentzat. Sarrera 100 pezeta Kirol Zerbitzuko bazkideentzat eta 200 pezeta gainontzekoentzat. Derrigorrezkoa da txanoa eramatea.

Rock kontzertua 23:00etan Pol-Polen.



24 Martitzena

Ur jolasak igerilekuetan, 10:30etatik 13:00etara.

Gabon kantak: Goizean zehar eta iluntzean, herriko hainbat taldek gabon kantak eskainiko ditu kalean.

25 Eguastena

Old Boys Quintet taldearen emanaldia Infernukua tabernan, 19:30etan eta 23:00etatik aurrera.

26 Eguena

Ur jolasak igerilekuetan, 10:30etatik 13:00etara.

Fucking what! taldearen kontzertua 23:00etan Pol-Polen.

Zine-Kluba: Forum Cinematographe taldeak antolatuta, La vida de Bohemia filmearen emanaldia 22:15etan Novedadesen.

27 Eguakitza

Barricada eta **Hamblet** taldeen kontzertua 23:00etan Jam aretoan. 1.500 pezeta.

Zinea: Dragonheart. Novedadesen, 22:30etan.

28 Zapatua

Gabonetako 2. Futbito txapelketa. Bergarako selekzioak eta Oñati, Azpeitia

eta Donostiakoek futbito txapelketa jokatuko dute zapatu eta domekan Kiroldegian. Zapatuan, 17:00etatik aurrera finalerdiak jokatuko dira eta domekan, 10:30etan hirugarren eta laugarren posturako partidua eta 12:00etan finala. Bi partiduen artean, 11:30etan, Bergarako eta Euskadiko emakumezkoen futbito selekzioen arteko partidua jokatu da.


Turbonegro eta **Discipulos Dioniso** taldeen emanaldia Jam aretoan 23:00etan. Sarrerak 1.500 pezeta salgai.

Zinea: Dragonheart, 17:00 eta 19:30etan. Secretos y mentiras, 22:30etan.

29 Domeka

Bergarako pintoreen erakusketa ikusteko azken eguna. Kultur Etxean.

Bestalde, **Fernando Arenazaren** margo erakusketa Nahikari tabernan Gabonen amaierara arte.



Siaska

Dena zure
haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA

Gabonetako Herri Krossa 11:00etatik aurrera. Irteera San Martin plazan. 10 kilometroko ibilbidea.

Zinea: Dragonheart, 17:00etan. Secretos y mentiras, 19:30 eta 22:15etan.

30 Astelehena

Bizar-Zuri 19:00etatik aurrera herriko kaleetan.

Herriko **eskultoreen erakusketa** Kultur Etxean urtarrilaren 12ra arte.



Zinea: Secretos y mentiras, 19:30etan (Ikuslearen eguna).

Rock kontzertua 23:00etan Pol-Pol tabernan.

31 Martitzena

Urte amaierako kotiloia Jam aretoan goizeko ordubateetik aurrera. Opari poltsak ikusleentzat eta zozketa ugari. Sarrera 1.000 pezeta.

1 Eguastena

Zinea: Tin Cup, 17:00, 19:30 eta 22:15etan Novedadesen.

2 Eguena

Gabonetako parkea Kiroldegian 15:30etatik 18:30etara. 14 urtetik beherakoentzat. Era guztietako jolasak eta hainbat tailer izango dira Xipizaroren eskutik. Sarrera 100 pezeta. Bost urtetik beherako haurrentzat joku bereziak izango dira. Derrigorrezkoa da kirol oinetakoak eramatea.

Zinea: Tin Cup, 19:30etan.

Rock kontzertua 23:00etan Pol-Polen.

3 Eguakitza

Gabonetako parkea Kiroldegian, 15:30etatik 18:30etara.

Futbolin txapelketako finala Jam aretoan 20:00etan.

Zinea: Un padre en apuros.

4 Zapatua

Gabonetako parkea Kiroldegian, 15:30etatik 18:30etara. Arratsaldeko 6etan partaide guztientzat txokolatada izango da Kiroldegian bertan.

Zinea: Un padre en apuros eta Mas que amor frenesi.



Ñake antzerki taldea gaueko 12etan Jam aretoan. 1.000 pezeta.

5 Domeka

Erregeen kabalgata 19:30etatik aurrera herriko kaleetan.

Zinea: Un padre en apuros eta Mas que amor frenesi.



6 Astelehena

Zinea: Un padre en apuros, 17:00, 19:30 eta 22:15etan. Schwarzenegger gihartsuaren azken pelikula.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxa: 76 04 77

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Moketak eta tapizatuak

Karatea Bergaran

Bost karate eskola daude gure herrian

Duela 15-16 urte bergarar talde bat karatea egiten hasi zen. Harrez gero, ikasten ibili dira eta une honetan irakasle direnak ere badaude. **Kyokushinkai, Goyu-Ryu, Shotokan, Karatea, eta Karate modernoa deituriko estiloak dira Bergarako bost karate eskoletan lantzen direnak. Batean zein bestean, asko dira karatean dauden bergararrak.**

Karatea, Daruma edo Bohodiharma izeneko budista batek Indian sortu zuen eta egindako misiolari lanari esker, Txinara zabaldu zen. Ehundaka urteko praktika eta bilakaeraren ondoren, armak debekatuak zituzten Okinawako biztanleek eman zioten bere behin betiko egitura XVII. mendean geroztik, 1400-1609 urteen bitartean.

1950ean, Funakoshi maisuak, mendebaldera hedatu zuen, Japoniara. Ekialdeko beste borroka motak bezala, karateak gudu teknika eta jarrerak eta gizabidezko erritualak



Carlos eta Aitor Albisua, bere ikasle batzuekin, Panticosan egindako ikastaro batean.

biltzen ditu. Karate hitzaren esanahia, kara, "huts" eta te, "esku" da eta animalia ezberdinen mugimenduetan oinarritzen da. Maisuek, beraien egoera fisikoaren arabera, modalitate ezberdinak sortu zituzten: batzuk, elastikotasunari eman zioten garrantzia, beste batzuk indarrari edo beste ezaugarri batzuei.

Adin mugarik gabeko kirola

Karateak, defentsarako edo borrokarako ezezik, gizabanakoa disziplintzeko eta osatzeko balio du. Alde fisikoa asko landu arren, karatekek ez dute kirol gisa ikusten, arte martzial bezala bai zik. Karatean aritzeko, adinak ez du garrantzia

berezirik. Gaztea izatea komenigarria da, baina nagusiek ere karatek onak izateko aukera dute. Jendea, arrazoi ezberdinengatik hasten da karatea egiten: izerdi puskatuta, gerrikoak lortu; gazteek telebistan ikusita, eta gutxi batzuk, defenditzen ikasi eta konpetiziotarako gertatzea dute helburu. Ka-

EMILIO PERNAUT
doktorea

traumatologia eta zirugia ortopedikoa

Kontsulta: PAKEA. Amillaga, 8 Bergara ☎ 76 13 49

EGUNA ETA ORDUA ESKATU BEHAR DIRA.


CIT

CYBERTRACK

Ordenagailu Salmenta
Serbitzu teknikoak

Urtatza 46, 1ºD

Tlfnoa : 73 09 70



PENTIUM-a 20 MHz 04.900 pztā

PENTIUM-a 50 MHz 24.900 pztā

Programak eta jokuak instalatzen dugu

GARANTIA : 2 URTE

Pentium-a 133 MHz 109.900 pztā soilik

ratean, maila egokia lortzeko, indarra izateaz gain, pentsamolde konstantea izatea oso garrantzitsua da. Heldutasuna izan behar da. Hau guztia lortzen bada, borrokatzeko ezezik eguneroko bizitzan sor daitezkeen arazoei aurre egiteko baliogarria izan daiteke.

Gerrikoak

Japonian sendotutako artea izanik, erabiltzen den terminologia ere japonierazkoa da, hauen artean; sensei (irakaslea), rei (agurra), seiza (eseri), yoi (gertu), kata (forma), hajime (hasi), eta kiai (karrasia) bezalako hitzak daude. Gerrikoek, karatekaren ezagutza adierazteko balio dute. Zuritik hasi eta, horia, laranja, berdea, urdina, marroia eta beltza dira karatean erabiltzen diren gerrikoak. (Kyokushinkai estiloan, zuria eta ondoren urdin argia dago). Beltza lortzerakoan, mailak Dam-en bitartez adierazten dira (lehengo Dam-a, bigarrena...).

Ekialdeko beste borroka motak bezala, karateak gudu-teknika eta jarrerak, eta gizabidezko erritualak biltzen ditu.

Zer dira katak

Kontaktoaz gain, teknika eta pozizioak lantzeko katak deituriko borroka imaginarioak ere lantzen dira. Guztira 18-19 kata mota daude. Modalitate guztien arteko ezberdintasun nabariena, kata eta teknika egiteko era da. Batzuk kolpeak gorputzaren goialdean ematen dituzte, beste batzuk behealdean... Karate irakaslea izateko, gerriko beltza eta irakasle agiria lortu behar bada ere, ikastaro bereziak eta entrenamendu gogorrak jarraitu behar dira.

Kyokushinkai

Koreako, Masutatsu Oyamak 50. hamarkadan sortu zuen sistema da. Kyoku hitzak; garaia esan nahi du; shin-ek, egia; eta kai-k, elkartasuna. Kyo-

kushinkai modalitatearen ikurra edo sinboloa "kan-ku" deituriko kata bat da. Bergaran, Aitor eta Carlos Albizua anaiek, Bolu gimnasioan, Kyokushinkai irakasten dute. "17 urterekin hasi ginen karatea egiten eta duela bost urte, Kyokushinkai modalitatea irakasten hasi ginen. Kontaktoa asko lantzen dugu baina horrek ez du esan nahi beltzunez beteta amaitzen dugunik. Ez ditugu lesio asko izaten. Futbolearen esaterako, lesio gehiago izaten dira".

Karate modalitateak antzekoak dira, aldatzen dena entrenamendua da. "Guk gogor entrenatzen dugu, beste batzuk moteltxeago aritzen dira. Belauna, ukalondoa, besoak, hankak... erabiltzen ditugu aurkaria jartzeko. Musuan, sabelean eta gorputzeko beste atal

batzuetan jotzea baimenduta dago".

Aitor eta Carlos-ek, arlo espiritualari garrantzi berezia ematen diote. "Pertsonaren oborea, beziketa eta adimena zainduduz gero, borroka garaian, bermea handiagoa da. Buruarekin borrokatzen jakin behar da".

Aitor eta Carlos Albi zuaren hiru ikaslek, garaipen garrantzitsuak lortu dituzte. "Jaime Martin, kata lehiaketan, espainiako txapeladuna eta Iker eta Gorka Gonzalez, berriz, txapeladunordeak izan ziren. Lan handiaren ordaina izan da. Gazte hauek, estatuko hainbat tokitako txapelketetan hartu izan dute parte, alde batetik bestera ibili dira".


Shotokan

Funakoshi maisuak bultzatutako sistema da. Modalitate guztien artean zaharrenetarikoa. Eskuak eta hankak asko erabili arren, kolpe gehienak gorputzaren behekaldera zuzenduta daude. Joxean Iñarra duela 14 urte hasi zen modalitate hau irakasten. "Denbora asko daramat Shotokan irakasten eta ikasten. Hala ere, ikasteko asko gelditzen zait, oso zaila baita karatea guztiz dominatzea. Astero, larunbategan, Gasteizera joan behar izaten dut nire maisuarekin karatea lantzerat".

Shotokan-ean, kontaktoa egon arren, ez zaio garrantzia handia ematen. Teknika, abiadura, koor-



Giartzu gimnasioko umeek astean hiru bider izaten dituzte klaseak.



JOEL MEDRANO

Zergatik aukeratu duzu karatea?


Bederatzi urte ditut eta orain dela hiru urte hasi nintzen. Txikitan, aitari karatea egiten ikusi nionean, atsegina iruditu zitzaidan. Batzuetan, kalean, klaseetan ikasten dudana lagunei erakusten diet.



OLGA RODRIGEZ

Zer suposatzen du karateak zuretako?


Oso gustoko dut eta gorputza osasuntsu edukitzeko era bat da. Karatea defentsarako erabil daiteke baina gehien erakartzen nauena ikastea da. Kanpotik ikusten denak ez du zer ikusirik klasetan ikasten denarekin.



MIKEL ARAKISTAIN

Noiz hasi zinen, karatea praktikatzan?


Sei urte nituela hasi nintzen eta orain dela urtebete, gerriko beltza atera nuen. Oso gustokoa dut eta jarraitzeko asmoa daukat. Kirol ezberdinekin gonbaratuz, konpletoagoa dela iruditzen zait.



OSKAR TORRES

Zer abantaila ditu karatea ikasteak?

Autokontrola, konfidantza eta nerbioak apaltzeko lagungarria da eta, era berean, fiskoki ondo mantentzeko modu bat. Kirola ezagutu ondoren gustoko nuela ikustean, klasetara joaten hasi nintzen.



ANTONIO ALCAIDE

Nola definituko zenuke?

Ezagutu dudan kirolik gogorrena eta konpletoena da. Elastizitatea eta fisikoa asko lantzen dira. Duela lau urte, gogorra zela esan zidatenean, jakinmina handitu asmoz, karatea egiten hasi nintzen.

dinazio eta adimenari ber-
rizariz, bai. Borroketan tek-
nika nola erabiltzen den
baloratzen da. "Ostiko
bat ematea erreza da
baina ostikadak ondo
ematen ikasi behar da
eta hori ez da egun bate-
tik bestera egiten den
zerbait".

Bergaran, maila pare-
gabea dagoela uste du Jo-
xeanek. "Taldea asko gau-
de karatea ematen, eta
borrek maila mantentze-
ko balio du. Gainera, es-
tilo ezberdinak lantzeko
aukera dago".

Karatea ikasteko,
praktika beharrezkoa da.
"Gutxienez, astean biru
ordu ematea beharrez-
koa da. Nagusiekin ez
dago arazorik baina,
umeak baseran pozik ha-
si arren, bizkorrago as-
pertzten dira. Horregatik,
karatean hasteko adin
egokiena, 6-7 urte dela
uste dut".

Joxeani tokatu izan
zaio, kalean defenditzeko
Shotokan-a erabili behar-
ra: "Zoritxarrez, birritan
erabili dut. Esperientzia

oso gogorra eta ezatsegi-
na izan zen. Egia esan,
ez nioke inori gomenda-
tuko".

Shotokan-ean eta bes-
te modalitate guztietan,
errespetatu behar diren
legeak daude. "Filosofia

bat ere ikasten da. Ume-
ekin ezin da filosofia ja-
rraitu baina nagusiei po-
liki poliki energia zer-
den, nola erabili behar
den, meditazioa, arnas-
teko era... irakasten za-
ie".

Karatea

Giartzu gimnasioan,
Iñaki eta Luisek, karatea
irakasten dute. Une hone-
tan, umeekin bakarrik ari
dira lanean. Batatz beste-
ko adina bederatzi urte-
koa da. Iñakiren ustez,
umeei zuzenduriko kara-
tea, lehendabizi, jolasa
eta kirola izan behar da,
eta ondoren karatean
pentsatzen hasi. "Umeak,
gauza berriak ikasi nahi
ditu eta interesa man-
tentzeko, karatea mol-
datu egin behar da. Gu-
rekin daudenak, 4-5 urte
dituztenean hasten dira
karatea ikasten eta adin
horretan, beharrezkoa
dute ondo pasatzea".
Umeen kasuan, karatea
ikasteko interesa, bai te-
lebistan ematen dituzten
pelikulengatik eta baita
lagunen eraginagatik ere
sor daiteke. "Gurasoek,
karate itxura duen zer-
bait egiten hasten direla
eta gustoko dutela ikuste-
an, klaseetara ekartzen
dituzte. Bestalde, medi-
kuek ere, umeak duen



Joxean Iñarrak Miguel Altuna institutuan ematen ditu klaseak.

izaera aldatzeko gomen-
dagarria dela diote, hau
da, oso lasaia bada bizi-
agoa eta oso urduria ba-
da geldoagoa izateko,
bitz batean, beharrezko
oreka mantentzen eta
disziplina ikasten lagun-
tzen du”.

Ume batzuek, katetan
oinarrizten diren lehiaketan
hartzen dute parte.
“Borroketan parte hart-
zeko adin minimoa 18
urtekoa da eta ondorioz,
haurren interesa bandi-
tzen laguntzeko, kata le-
hiaketak antolatzen dira”.

Goyu-Ryu

Karate mota tradizio-
nala da. Go-k; indarra; yu-
k; malgutasuna eta riu-k,
eskola esan nahi du. “Sho-
rei” borrokan oinarrituta
dagoen arte martzial hone-
tan, kontaktu fisikoa asko
lantzen da. Eskuak, be-
launa eta ukalondoa era-
biltzen dira gehien eta
konbatean borrokalarien
arteko distantzia oso mo-
tza da. Normalean, golpe
gogorak jasaten dira. Sal-
va Gonzalez, duela bi ur-
te hasi zen Goyu-Ryu ira-
kastea. “Borrokatzea
atsegin dut oso eta duela

**Karate estilo guztiak antzerakoak dira, baina badira
diferentziak, batez ere entrenatzeko eran. Batzuk
gogorrago entrenatzen dute**

13 urte, karatea ikasten
basi nintzen”. Ezaugarri
fisikoak izatea lagunga-
rria den arren borrokatze-
ko nahia, energia ondo
erabiltzen jakitea eta zure
buruarekiko konfidantza
oso garrantzitsuak dira.
“Beste estilo batzuetan,
mina ez hartzeko marka-
ketak egiten dituzte, guk,
Kyokushinkai estiloan
gertatzen den moduan,
kontaktu osoa egiten du-
gu. Ez ditugu konbate
asko egiten baina egiten
ditugunean, nabiko go-
gorrak dira, baina hori
bai, beti apaltasunez”.

Salvak, 17 urtetik 22 ur-
te ingurura dituen jendea-
ri da klaseak ematen.
“Umeei irakastea ere gus-
tatuko litzaidake baina ez
dut astirik”. Bergaran, ka-
ratea irakasten duten tal-
de ugari egon arren, une
honetan ez da modan
dagoen zerbait. “Berga-
ran karatea ikasten duen
jende kopurua finkatuta
dago. Une honetan gau-
den irakasleok, denbora

luzea daramagu karate
munduan eta moda
kontua izan balitz, ez
ginateke une honetan la-
nean arituko”.

Karate modernoa

Miguel Galvan, duran-
garra duela 15 urte hasi
zen karate estilo hau ira-
kastea. Bergara Karate
Elkarteko irakaslea da.
“Elkartea sortu zenetik
naiz irakasle. Udalak la-
guntzak ematen dizkigu
lehiaketak antolatzeko
eta parte hartzera joate-
ko. Bi hilabetea behin
esaterako, Bergarako ki-
roldegian, umeentzako
liga antolatzen da. Le-
hiaketa honetan ez zaio
garrantzi handia ematen
irabazteari, parte harte-
ari baizik. Umeein lan
egiten dugu gehienbat eta
gure lana beziketan oina-
rritzen denez, lehiaketetan
galdu edo irabaztea ez da
garrantzitsua. Umeengan
ez du ondorio ezkorrik utzi
behar”.

Modalitate honetan,
gorputzeko atalak babes-
teko, eskularruak, petoak
eta zapatila antzekoak
erabiltzen dira. “Kontak-
toa izan arren, aurpegi-
an jotzea debekatuta da-
go”. Babesgarriak erabi-
tzean, neurri batean,
ikusbizuna moteltzen da,
baina mina hartzeko au-
kerak ere gutxitu egiten
dira. “Modalitate guztiak
oinarri bera dute, guztie-
tan eskuak eta bankak
erabiltzen dira. Ezber-
dintasuna erregelamen-
duan datza baina guzti-
etan, erreakzioak eta az-
kartasunak balio du ge-
hien”. Miguelek nagusie-
kin ere lan egiten du, baina
ikasle gehienak umeak di-
ra. “Oso gazteak direnez,
lehendabizi aurre-karatea
irakasten diet”. Telebistak
eragina du umeengan.
“Normalean, pelikuletan
edo marrazki bizidunetan
ikusitakoa ikastera datoz.
Askotan harrিতuta gel-
ditzen naiz, egiten dituzt-
en mugimenduekin”.

IBILTARIENTZAKO
PODOMETROA 12.500 pta. 8.900

P.V.P.: 5.450 3.475

Uztegabeko opariak

P.V.P.: 13.950 9.500

Aukera ezin hobea

11.875 pta. 8.790

11.000 pta. 8.500

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

MULTIOPTICAS EIBAR

%15eko DTOA EGUZKIKO BETAURREKOTAN

GELDITU ERREGE BAT BEZALA. EGUZKIA OPARITU.

GIORGIO ARMANI
Christian Dior
byblos
bollé
CARRERA
EASSUN
LOOK OCHHALI
INDO

Christian Dior
Parfums
paco rabanne
STING
NINA RICCI
YVES SAINT LAURENT
VOGARET

UKIPEN LENTEAK

HILEKO ALDAKETA 12 LENTE 14.000 pta.

LENTILAK 18.000 pta.

HAUETARIKO EDOZEIN EROSTEAGATIK MOTXILA ZORAGARRI HAU OPARI APROBETXA ZAITEZ

Ibargarai, 16
BERGARA
Tel. 76 15 75

Juan Carlos Guerra, 1
ARRASATE
Tel. 79 29 95

J. M. BORDIARIAN Enp.
ORDIZIA
Tel. 88 99 88

Bidebarrieta, 2
EIBAR
Tel. 20 05 22

Gabonetako loterian Gordoa tokatuz gero, zer egingo zenuke?



Ana Mari Bea

Nire ametsa beti izan da gure umeei ematea. Besterik? Bidaiaren bat egin, edozein tokira. Horrekin konformatzen naiz.




Mohamed Topis

Lehenbizi tokatu egin behar... Beharbada Marruekosera bidaiia egingo nuke eta familiakoei opari batzuk erosi.



Asier Lenisoro

Auskalo!! Lehengoz bidaiia bat egingo nuke, Honoluluera joango nintzateke. Eta hortik aurrera kotxea, etxea..., gauza asko.



Jose Luis Gonzalez

Zulo batzuk tapatu eta falta zaizkidan gauza batzuk erosi, kotxea aldatu... Hori nahikoa izango litzateke.



Sagrario Iglesias

Bidaiia on bat egingo nuke, ahal den urtinen joango nintzateke. Kotxea eta etxerako ere primeran etorriko litzaiguke diru piskat...



Gema Rementería

Gastatu. Etxea gustora jarri piskat eta momentuz beste ezer ez zait bururatzen. Etxea nire gustora jarri, hori egingo nuke.

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**


Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32



**Matxiategi
Elektragintza
C.B.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAZIOA**

Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94



Munduaren gaisotasuna

Azken hamarkadan asko izan dira munduan gertatu diren is-tiluak, Etiopia, Yugoslavia, Somalia, Ruanda..., eta guztietan pro-tagonista bat: pobrezia. Azken egun hauetan Zairen gertatzen denaren berri izan dugu eta han gertatzen denak, hunkituta uz-ten gaitu, nahiz eta gure hunkitzeko gaitasuna gero eta ahula- goa izan. Gaur egun azpigaratutako munduan 3 mila milioi per-sona baino gehiago miseri gorrian bizi dira. Atarian dagoen 2.000. urtean 6 mila milioi biztanle baino gehiago izango du munduak. Hunkitzeko modukoak dira zifra hauek baina, zenbat aurkituko dira miseri gorrian? Gauzak dauden bezala, ez du ematen asmatzea zaila izango denik.

Munduko populazioa handitzen doan neurrian errekurtsuak gutxitzen dira. Lurraren degradazioa dela eta, hazgarriko lur sai-lak murrizten ari dira herri garatu eta azpigaratuaren arteko aldeak haundituz. Iparraldea eta hegoaldea gero eta urrunago; gero eta populazio gehiago, gero eta errekurtsu gutxiago. Kontsumo-gi-zarteak ez du ez arazo hau zuzenduko. Antzuak susmatzen dira herri hauetara bidaltzen diren laguntzak. Ez dut esaten beha-rrerakoak ez direnik ez, baizik eta ur tanta bat itsaso zabalean besterik ez direla diot.

Gauzak horrela, ulertezina da munduko estaturik ahaltsuena-tarikoak (Vatikanoak) egin duena: UNICEF erakundeari ematen zion kontribuzioa kentzea erabaki du. Zergatik? Erakunde hau herri txiroenetan pairatzen den miseria leundu nahian antisorgai-lu eta kasu berezietan abortoarean alde agertzen delako. Bestal-de, Aita Santuak orain dela urte batzuk Vatikanoaren antzeko eraikuntza erraldoi bat eraiki zuen Afrikaren bihotzean. Bitartean, hango biztanleei zera esaten zien: Jainkoak emango dizkien seme-alabak eduki ditzatela. Hau da hau, kristau karitateak mun-duko miseria gainditu nahian.

Eugenio ALLES



Urtaroa

Aurten ere bizitzaren geldiezinezko gurpilak aurrera darrai-la konturatu barik gure mendietan, orbelez osatutako alfonbrak hain erakartzen nauen elurrari tokia egin dio. Hemen, herrian, ur-taro honek beste bereizgarri batzuk ditu: liburu eta disken hiper-merkatu erraldoiaren ondoren, Gabonak gainean ditugu; biak ere aitzakia ederra, diru mordoxka bat uxatzeko (ulertezina! non ezkutatzen da kultura egarri eta on egin/opa behar hori urte guz-tian zehar).

Bata zein bestearen ondoren haustura izugarri bat egongo dela dirudi, eta nire uste otzanean bai Durangoko periak, bai Be-lengo istorioak, hain errotuta dugun kontsumismoa areagotzeko besterik ez dute balio. En fin, aurki izango dira kontuak urtarri-leko jasan ezinezko aldapa ospetsuan.

Garai honek ohikoa bihurtu den amodiozko lehiaketa ere ba-dakar. Iaz erabat txundituta geratu nintzen partaideen adinaren berri izan nuenean. Zaharrena... neu nintzen. Zer gertatzen da? Urteak joan ahala maitasuna adierazteko ahalmena galtzen ote dugu? Edota ezin dugu horrelako "txorakeriatan" denborarik gal-du? -Jakina, helduok ordenadore aurrean jarriz gero, txostenak edo baliozko idatziak besterik ez ditugu zirriborratzen- Zer egingo diogu...

Dana dela, animatzen zaituztet seme-alabez gain, besteren bati ere "maite zaitut" xamur eta goxo bat esatera. Bide batez, papera eta boligrafoa hartu eta xamurtasun hori isladatu. Behin-goz heldutasun faltsu hori alde batera utzi eta buruarekin idatzi beharrean bihotzarekin izkiriatu.

Ez da horren zaila eta zin egiten dizuet horrela lortzen den irrifarrak ez duela zer ikusirik Gabonetan daramagun ezpain bi-hurritu horrekin. Benetan!

Eutsi Polle!!

Roberto IZAGIRRE

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

■ **Aranzadi ikastolan ibilitakoen afaria**

Iaz bezala, Gabonen atarian, **1968an jaio** eta **Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoek** afaria egin zuten zapatuan. Ohizko poteoaren ondoren, Aranzadi ikastolako ikasle ohiek afaria egin zuten Azpeitxi jatetxean. Giroa primerakoa izan zen eta afal osteko tertulia luzearen ondoren argazkia atera zuten oroigarri modura. Aurtengo afarian **35 lagun inguru** bildu ziren eta datorren urtean ere berriz biltzekotan geratu ziren.



■ **Herriko pintoreen erakusketa**

Joan zen eguakitzean **Bergarako pintoreen erakusketa** zabaldu zen Kultur Etxean. **Herriko 30 pintorek** hartzen dute parte erakusketan eta euren lanak abenduaren 29ra arte izango dira ikusgai. Eguakitzean

artista eta ikusle dexente hurbildu zen Kultur Etxera. Ikusleek, pintoreengandik euren lanei buruzko xehetasunak jasotzeko aukera izan zuten eta jarraian ohizko luntxa banatu zen. Margolarien erakusketan ondoren, herriko eskultoreen txanda etorriko da, abenduaren 30etik urtarrilaren 12ra hain zuzen ere.

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Gallastegi

Jostundegia

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez
Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea
☎ 76 21 65 / 76 24 45

■ **Gaztetxoan
bilgune**

Harrera ona izan du **Jardunek** gaztetxoentzako **Gartzela Zaharra** zabaltzeak. 12 urtetik gorako gaztetxo ugari biltzen dira bertan astebukaeretan, zapatuetan arratsaldeko 5etatik 8etara eta



domeketan, goizez 12etatik ordubietara eta arratsaldez 4retatik 8etara. Era guztietako ekitaldi eta jokuekin primeran pasatzeko aukera izaten dute eta elkarrekin egon eta jolasteko lokal aproposa bihurtu da Kartzela Zaharra. Hemendik aurrera beharrezkoa izango da karneta Kartzelako ekitaldietan parte hartu ahal izateko. Bi argazki eta 3.000 pezeta eskatuko dira. Ez galdu aukera!!



■ **Gorren
erakusketa**

Bergarako Arans-Gi zentroan ikusgai izan da egunotan **gorren kolektiboak antolatutako arte erakusketa** (gaur duzue erakusketa ikusteko azken aukera). Bertan **44 lagun** lanak

erakutsi dira eta helburuak hiru izan dira: arte lanak jendeaurrean azaltzea batetik, gorrei horrelako esperientziak elkartrukatzeko aukera ematea bestetik eta, azkenik, gazteei gor nagusien ereduarekin identifikatzeko aukera ematea. Erakutsitako lanen artean behintzat bazeuden maila bikaineko lanak ere...

**Zertan
dihardute
ba?**



Eduardo Jauregi 29 urteko bergararra udaltzain lanetan hasi da Arrasaten. Lanbide Heziketako mekaniko ikasketak burutu ditu eta horrez gain Ingurugiro Osasuneko teknikaria eta Nekazaritzako elikagaien industriaren ikuskaria dugu. Abenduaren 2tik ari da Arrasaten lanean eta bere hitzetan, *"kotxe gidariekin badakizu, borroka piskat egin behar. Gainera nabiko sasoi txarra da hau, lan asko daukagu"*. Gaur egun 19 udaltzain dira Arrasaten lanean eta Edurekin batera beste lau sartu dira orain. Edu Jauregik Nizako triatloia amaitu zuen aurtan.

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA
☎ 76 60 39

BERGARA
☎ 76 19 98

ZUBIETA
elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atekak, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Ifnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Ana Etxaniz

Ana Etxaniz 15 urterekin hasi zen Aritzeta abesbatzean. Orain dela 10 urtetik Orfeoiko kidea da (kontraltoa) eta, horrez gain, 7 urte daramatza Igaro usaindegian estetizista lanetan.

- **Gabonak atsegin zaizkizu?**
- Bai, asko gainera.
- **Gauzarik onena?**
- Izaten den giroa, Gabon kantak...
- **Eta txarrena?**
- Norbait falta denean tristeak dira.
- **Gabonetan oporrik?**
- Ez, gainera normalean baino lan gehiago izaten dugu.
- **Aukera izanez gero, Bergaratik alde egingo zenuke?**
- Ez.
- **Gabon gaua ala Gabonzaharra?**
- Gabon gaua.
- **Turroizalea zara?**
- Bai.
- **Turroi gogorra ala biguna?**
- Txokolatetzkoa.
- **Janari bat?**
- Patea.
- **Angulak badakizu zenbatean dauden?**
- 40.000 edo...
- **Olentzero ala Errege Magoak?**
- Erregeak.
- **Zein opari eskatuko zenuke?**



Gabonak asko gustatzen zaizkit, eta txokolatetzko turroia. Oporrik ez dut hartuko Gabonetan, gainera bestetan baino lan gehiago izango dut. Gordoa tokatuz gero, etxea jarri eta bidaia on bat egingo nuke"

- Bidaia bat munduan zehar.
- **Zeuk egindako azken oparia?**
- Erloju bat, nobioari.
- **Gabonetako kontzertuko piezarik onena?**
- Orra Mari Domingi eta Haendelen Aleluya.
- **Konpositore bat.**
- Verdi.
- **Operan izan zara inoiz?**
- Bai, Pragan, Las bodas de Figaro ikusten.
- **Abeslari bat?**
- Luz Casal.
- **Lagunarteko afarietan abesteko ohiturarik badaukazu?**
- Orfeoiko jendearekin bai.
- **Erretzailea zara?**
- Gutxi. Astebukaeretan gehiago.
- **Hobby bat?**
- Abestea, bidaiatzea eta hizkuntzak. Ingelesa ikasten nabil.
- **Ikusitako azken filmea?**
- Sentido y sensibilidad.
- **Liburu bat gomendatu.**
- El medico, Noah Gordonena.
- **Lora bat?**
- Larrosa gorria.
- **Jantzi bat?**
- Txalekoa.
- **Zer izan nahi zenuen txikitan?**
- Pelukera esaten nuen...
- **Loterian jokatzeko duzu?**
- Bai.
- **Eta Gordoa tokatuz gero, zer?**
- Etxea jarri eta bidaia on bat egin.
- **Aurten gertatu zaizun gauzarik onena?**
- Ezer txarrik ez dela gertatu.



LAGUN ARO

ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00



ETXEBIZITZA

Pisua salgai Frontoian. 160 m2. ☎ 76 24 42.

Pisua alokairuan hartuko genuke Donostian. ☎ 79 08 92 (Maidier).

Pisua alokairuan hartuko nuke. ☎ (945) 24 83 96.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Kontsultarako lokala alokairuan. ☎ 76 07 84.

Gela bat salgai. ☎ 78 25 85.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 70 82 90.

Garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Garajea saldu edo alokairuan jarriko nuke Santa Marinaran. ☎ 76 47 67.

Pisua alokairuan Zubiaurreko 19. zenbakian, lehen pisuan. ☎ 76 13 85.

Kontsultarako gelak alokairuan jartzen ditut Koldo Eleizalden, Bolun. ☎ 76 58 91.

Arkaian, Araban, 15.460 m2 salgai. ☎ 76 63 27.

Pisua salgai Arrizurin. Garajea. ☎ 76 55 28.

Garajea salgai Bolun. ☎ 76 44 89.

Osintxun buhardilla salgai. ☎ 76 15 36.

DENETARIK

Erloju bat topatu dut Zurraderon. ☎ 76 16 57.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Kerosenozko estufa salgai egoera eta prezio onean. ☎ 76 21 71 (Amaia).

Kitarra elektrikoa eta amplifikadora erosiko nituzke. ☎ 74 37 23 (Loli).

Bainuko ispilua, toaileroa eta beste tresna batzuk oparitzen ditut. ☎ 76 39 96.

Su egurrak eta zelaia ixteko estakak salgai. ☎ 73 35 35 (Julian).

Bigarren eskuko botoiakordeia erosiko nuke. ☎ 76 11 96.

Taberna-erretegia traspasatzen da. ☎ 76 24 45.

Montesa Cota 348 Trial motorra salgai. ☎ 76 61 05.

Kerosenozko estufa salgai. ☎ 76 06 72.

2. eskuko motorra erosiko nuke. ☎ 76 14 70 (Asier).

Irrati kontrolako abioia salgai. ☎ 76 51 94.

Kotxe teledirijitua salgai. ☎ 76 04 63.

Alemaniar artzai txakurrak (emeak) saltzen ditut. ☎ 76 53 35/76 32 14.

Logela eta frigorifikoa salgai. ☎ 78 25 85.

LANA

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

Ingeles klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 80 (Dorleta).

Emakume batek zaharrrak zainduko lituzke. Esperientzia. ☎ 76 48 96.

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Mate eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Haurrak edo helduak zaintzen ditut. ☎ 76 45 93.

Ingeles Filolojian lizentziatua, klaseak emango nituzke. ☎ 76 41 31.

Neska frantses batek frantseseko klaseak ematen ditu. ☎ 76 27 16.

Neska euskaldun batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 64 60.

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 31 96.

Klinika auxiliar batek gaitxoak edo helduak zainduko lituzke. ☎ 76 64 47.

48 urteko emakume euskaldunak haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 70 24.

IKASTARO INTENTSIBO BERRIAK


INGELES FRANTSES ALEMANA

Urtarrilaren 13tik aurrera.

- HIRU HILABETEKO IRAUPENA.
- EGUNERO BI EDO BI ORDU T'FRDI
- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.

**HONEZ GAIN BESTE
HAINBAT IKASTARO**

INFORMAZIOA:
Bergarako UNED. (3. pisu),
☎ 76 06 87



MATRIKULA ZABALIK!!

Danetik eta onetik...



BEDELKARren!!

***BEDELKARrek Gabon zoriontsuak opa
dizkizue bergarar guztiei. Zorionak!!***


1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A ZE FLAXA ETXAGI	24	8	41	10
2. ERROTAGAIN	19	8	25	12
3. JAUJA OH ZEREZOS	17	8	33	21
4. BAR CANALEJAS	16	7	30	20
5. BILDURBAREK OPEL/LAM	12	9	32	34
6. AZPEITXI JATETXEA	10	8	27	23
7. MONGATXURRA	10	9	26	28
8. OGIZUN	9	8	23	35
9. ORTZI	8	8	17	18
10. UFALA	8	8	26	31
11. ARLOTEAK/OILAGORRA	7	8	30	28
12. MADURA INDUSTRIAS GOI	7	9	15	29
13. PAGOMENDI	3	9	15	43

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ETXAGI	18	8	37	23
2. KAYAK OS JARDINEIROS	18	9	43	30
3. EZINLEIKE	17	9	30	20
4. ARTUSAMAK BERGATRANS	15	8	31	26
5. SOROPOTROAK	13	8	25	11
6. UVE BIKOITZA JAM	13	8	21	32
7. HALTZARI	11	8	25	21
8. LA JUVE	10	9	23	23
9. AGIÑASPI	10	9	22	36
10. AGIRREBENA JATETXEA	19	8	23	27
11. ERI	9	6	26	20
12. INDARGORRI	7	8	9	18
13. AUTOBEREZI	7	8	21	34

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	21	9	31	18
2. PJS	20	9	29	18
3. NEKROFILIKOS	18	8	31	19
4. MOSKIS	16	8	31	19
5. JAKINA PATXARAN TEAM	16	10	31	35
6. TXIPIRON	15	9	25	18
7. FAC	14	8	23	18
8. IGANDEKOAK	10	8	20	27
9. NAHIKARI HOOLIGANS	9	10	33	37
10. EH BITERRAK	8	8	15	25
11. CONSTRUCCIONES BERGARA	4	8	17	32
12. GANBARA	4	7	12	25
13. MRW	4	8	15	34

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARBE KIROLAK	28	11	60	26
2. MANITOU	27	10	70	15
3. ETENGABE	22	11	35	15
4. OSINTXU	19	9	37	21
5. MATXAKATEGI	17	10	23	17
6. PANORAMIX	12	10	30	40
7. XURRUPAK	12	9	22	32
8. AMILOTX	11	10	21	30
9. SLO	10	9	28	37
10. KOMANDO PIPERRAK	10	10	23	37
11. PATA NEGRA	9	10	21	51
12. ALDOKA MALDOKA	8	9	21	32
13. POLIDEPORTIVO TABERNA	4	9	14	45
14. PITTIXAK	3	9	20	25

Jokoz kanpo



Iñigo Herreros

LA JUVE

ZER MODUZ ZOAZTE TXAPELKETAN?

Hasi, ondo hasi ginen, baina azkenengo partiduetan nahiko gaizki gabilta.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena partidu onak egiten ditugunean, oso ondo jokatzeko dugula eta txarrena oso irregularrak garena.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Bai, behin 3 partidutarako.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Arratsaldez.

TXAPELKETA TALDERIK ONENA?

Bildurbarek.

JOKALARIRIK ONENA?

Juan Luis Etxaniz.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

10 eta 1 Agiñaspiri.

ETA JASOTAKOEA?

21 eta 2 Errotagainen kontra.

ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO?

4 lehenengoan artean sailkatzea espero dugu.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Ronaldo

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Ronaldo.

EUSKAL HERRIKOEA?

Abraham Olano.

JATEKO PLATER BAT?

Babak.

EMAITZAK

ARLOTEAK/OILAGORRA- BAR CANALEJAS	4-8
BILDURBAREK OPEL/LAM-A ZE FLAXA ETXAGI	2-6
ORTZI-AZPEITXI JATETXEA	2-2
UFALA-MADURA INDUSTRIAS GOI	6-1
OGIZUN-MONGATXURRAK	4-7
EZINLEIKE-LA JUVE	4-2
UVE BIKOITZA JAM-AGIRREBENA	6-3
KAYAK OS JARDINEIROS-AGIÑASPI	6-7
INDARGORRI-ERI	2-0
SOROPOTROAK-AUTOBEREZI	4-4
CONSTRUCCIONES BERGARA-MRW	4-2
GANBARA-MOSKIS	3-0
IGANDEKOAK-EH BITERRAK	2-2
PATXARAN TEAM-NAHIKARI HOOLIGANS	4-2
OANORAMIX-XURRUPAK	4-6
POLIDEPORTIVO TABERNA-PATA NEGRA	2-5
ARBE KIROLAK-KOMANDO PIPERRAK	3-3
MATXAKATEGI-ETENGABE	1-1
AMILOTX-PATA NEGRA	3-1
ARBE KIROLAK-ETENGABE	3-0
PANORAMIX-MANITOU	2-1

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: AMILOTX-XURRUPAK • PITTIXAK

10:00: PITTIXAK-KOMANDO PIPERRAK • IGANDEKOAK

11:00: IGANDEKOAK-NAHIKARI HOOLIGANS • KOMANDO P

Domekan barruan

09:00: TXIPIRON-PJS • PATXARAN TEAM

10:00: PATXARAN TEAM-GUADALEST • GANBARA

11:00: GANBARA-MRW • FAC

12:00: FAC-MOSKIS • CONSTRUCCIONES BERGARA

13:00: CONSTRUCCIONES BERGARA-EH BITERRAK • MOSKIS

16:00: MATXAKATEGI-ALDOKA MALDOKA • SLO

17:00: OSINTXU-SLO • MATXAKATEGI

18:00: HALTZARI-ERI • ETXAGI

19:00: ETXAGI-ARTUSAMAK BERGATRANS • SOROPOTROAK

20:00: SOROPOTROAK-KAYAK OS JARDINEIROS • ARTUSAMAK

Domekan kanpoan

09:00: BILDURBAREK-PAGOMENDI • BAR CANALEJAS

10:00: ORTZI-BAR CANALEJAS • UFALA

11:00: UFALA-AZPEITXI JATETXEA • ARLOTEAK/OILAGORRA

12:00: ARLOTEAK-MONGATXURRA • AGIÑASPI

13:00: EZINLEIKE-AGIÑASPI • MONGATXURRA

16:00: MADURA-ERROTAGAIN • JAUJA OH ZEREZOS

17:00: OGIZUN-JAUJA OH ZEREZOS • INDARGORRI

18:00: INDARGORRI-AGIRREBENA JATETXEA • OGIZUN

PARTIDUAK

GANBARA ETA MOSKIS TALDEEN ARTEKO PARTIDUA 3-0 LAGATZEA ERABAKI DU ANTOLAKETA BATZORDEAK, MOSKIS TALDEA PARTIDUA JOKATZERA EZ ZELAKO AURKEZTU. BESTALDE, MOSKIS TALDEARI 3 PUNTU KENDU ZAIZKIO JOKATZERA EZ JOATEGATIK ETA BESTE PUNTU BAT ARBITRATZERA LAGUN BAKARRA AURKEZTEGATIK.

Azkoiti eta Soraluzera Baqué txapelketako sariak

Etxaniz azkoitiarrak irabazi zuen jubenil mailako Baque torneoa Elola donostiarrari 18 eta 6 irabazi ondoren. Etxaniz zen favorito nagusia txapelketa irabazteko eta pronostiko guztiak bete zituen garaipen erraza lortuz. Kadete mailan Arrieta soraluzearrak 18 eta 9 irabazi zion Etxabe eibartarrari joko bikaina erakutsiz. Bi partidua ere emaitzaren aldetik oso orekatuak izan ez arren, tantu politak ikusteko aukera izan zen. Gainera azpimarratzekoa da jendearen erantzuna finalean frontoian jende asko baitzegoen.



Herriko futbito selekzioak Gabonetan jokatu du

Lagunak areto futbol elkarteak antolatutako Gabonetako 2. torneo abenduaren 28an eta 29an jokatu da. Zehaztu barik dagoen arren, Oñati, Azpeiti eta Donostiako taldeek jokatu dute Bergarako selekzioaren aurka. Halaber, emakumezkoen Bergarako selekzioak Euskadikoaren kontra neurtuko ditu indarrak.

Selekzioak osatuta

Gizonezkoen Bergarako selekzioa osatuko dutenak honako hauek dira: Asier Elorza, David Romero, Boni Agirre, Patxi Vallejo, Jose Mari Romero, Aitor Antón, Gorka Aiestaran, Javi Carrascosa, Juan Carlos Prieto eta Juan Luis Etxaniz.

Emakumezkoena, berriz, honakook: Saioa Bolivar, Nerea Elkoroberezi-bar, Ainize Oruesagasti,



Gizonezkoen eta emakumezkoen selekzioek jokatu dute.

Ane Olabide, Ainara Garitano, Usue Lazkano, Agurtzane Lete, Giomar Fernandez, Naiara Beistegi eta Maite Alvarezek.

Gizonezkoen finalerdiak abenduaren 28an, zapatua, jokatu dira arratsaldeko 5etatik aurrera. Hurrengo egunean,

berriz, hirugarren eta laugarren posturako partidua jokatu da 10:30etan eta finala 12:30etan. Bi partiduen artean, 11:30etan, emakumezkoen partidua jokatu da, esan bezala, Bergara eta Euskadiko selekzioen artean.

Eski denboraldia martxan Pol-Polen eskutik

Eski denboraldia hasi da dagoeneko eta urtero bezela hainbat bergararrek urte osorako bonoak atera dituzte. Oraindik denboraldia hasi besterik egin ez den arren, 83 lagunek hartu dute Astun, Formigal edo Candanchun eskiatzeko bonoa, iaz baino 7 lagunek gutxiago. Bergararren artean Candanchu eta Astun dira eskiatzeko estaziorik gogokoena. Eski aseguruari dagokienez, guztira 101 aseguru egin dituzte eta Pol-Poleko eski sailekoek gogorarazten dute istripuren bat izaten denean aseguruak duen garrantzia. Aseguruak 5.000 pta. balio ditu eta oraindik zabalik dago egiteko epea. Azkenik, esan dezagun, Pol-Poleko mendi sailak abenduaren 31n Aizkorriara joateko autobusa antolatu duela.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-Anaitasuna

Preferente maila.

Domeka. 15:30. Agorrosin.

◆ Bergara-Euskalduna

Ohorezko mailako jubenilak.

Zapatua. 16:30. Ipintza.

◆ Bergara-Lagun Onak

2. mailako jubenilak.

Zapatua. 11:00. Ipintza.

ESKUBALOIA

◆ Bergara-Portugalete

Senior mutilak.

Zapatua. 19:00. Kiroldegia.

◆ Bergara-Don Bosco

Jubenil mutilak.

Zapatua. 17:45. Kiroldegia.

SASKIBALOIA

◆ Bergara-Intxaurreondo

Senior neskek.

Zapatua. 16:15.

Kiroldegia.

◆ Bergara-Euskalduna

Junior mutilak.

Zapatua. 12:15.

Kiroldegia.

PILOTA

◆ DV txapelketako finala

Jubenil maila:

Blanco eta Tejero /

Olaizola eta Barriola.

Afizionatu maila:

Barberito eta Auskin /

Berasaluze VII eta Zearra.

Domeka. 11:30.

Udal Pilotalekua.

Bestalde, aipatu behar da,

BKEko pilotariak amaitu dutela

Klubon Arteko Gipuzkoako

Txapelketa eta junior mailan,

banaka, Gutierrezek bigarren

postua lortu du, txapelketa

bikaina burutu ondoren.

Antxon Maiztegi

Gipuzkoako igeri selekzioan

Antxon Maiztegi igerilariak 14 urte ditu eta joan zen asteburuan Gipuzkoako selekzioa ordezkatzuz, Akitaniaren aurka jokatuako igeriketa probetan aritu zen Eneritz Muguruza eta Gorka Gonzalez Bergara Igeri Elkartekoekin batera.

- Ze probatan aritu zinen?

- 100 metro eta 50 metro estilo librean eta sorbaldan aritu nintzen eta nahiko pozik nago lortutako denborekin.

- Zein da gehien gustatzen zaizun modalitatea?

- 100 metro krola da gehien gustatzen zaidana, horretan ibiltzen naitzelako ondoen.

- Eta gutxien?

- Braza, oso gutxi arreritzen dudalako.

- Ze distantzian moldatzen zara ondoren: luzeetan ala motzetan?

- Motzak nahiago ditut, luzeetan ez naizelako oso ondo ibiltzen. Gainera, fondoko probak ez zaizkit gustatzen.

- Zela hasi zinen igeri egiten?

- Ikastaro batean. Jesus Jauregik, monitoreak, Igeri Elkartean apuntatzeko esan zidan eta hurrez gero 6 urte daramatzat.

- Askok igeriketa aspergarria dela diote, denbora guztian bueltaka ibili behar delako...

- Ez da aspergarria. Entrenatzea batzuetan

kostatzen da, baina dauden probekin oso ondo pasatzen dugu lagun asko egiteko aukera baitauegu. Urtean zehar konpetizio asko daude; azaroan esate baterako, astebururo izan dugu konpetizioa.

- Astean zenbat entrenatzen duzue?

- Egunaren arabera, batzuetan fondoa lantzen dugunean distantzia luzeagoak egiten ditugu eta beste egun batzuetan, berriz, denbora gutxiago pasatzen dugu. 2.000 metrotik 3.000 metrora egiten ditugu egunero.

- Ze helburu daukazu aurtengo denboraldirako?

- Otsailean Espainiako txapelketak jokatuko dira eta espero dut gutxienezko marka lortzea. Gabonetan goiz eta arratsaldean entrenatzeko asmoa dugu eta ondo ibiltzen banaiz aukera izan dezaket, batez ere 100 metro krol eta 100 metro tximeleta probetan. Krolean gutxienez 58 segunduko marka egin behar dut eta orain minutu bateko denbora egiten dut.

- Gabonetan goiz eta arratsaldean entrenatzea ez al da gogorregia?

- Oporrak hartzeko go-go daukat, baina entrenatzen ez badut, gero ez dut aukerarik izango Espainiako txapelketara joateko.



100 metro krolen eta tximeletan dabil ondoen.

“Otsailean jokatuiko den Espainiako txapelketara joatea da nire helburua”



Horra, horra gure Olentzero...

Gabon eguna datorren martitzenean ospatuko da, eta ohiturari eutsiz asko izango dira kalera Gabon kantak abestera irtengo direnak. "Olentzero", "Hator, hator", "Horra Mari Domingi"... kantuak entzungo dira bazter guztietan. Kintoak, Alai Taldea, Orfeoia eta Aritzeta, Amnistiaren Aldeko Gestorak, Aranzadi ikastolako haurrak... Talde asko irtengo dira kalera.

Martitzenean Gabon eguna dela eta, aste honetan 1979an Martoko ikastolarekin kantuan irten ziren haurrak ekarri ditugu Erretratu Zaharrera. Batzuk gustora irtengo ziren, beste batzuk mutur beltz, amak behartuko zituelako, baina argazkirako guztiak aurpegi alaiekin. Poxpolin eta baserritar jantzita guztiak. Hara nortzuk diren ezkerretik eskumara.

Atzealdean: Ibon Garitano eta Maria Rosario Benitez.

Erdialdean: Nagore Agirre eta Aitziber Azkondo.

Aurrealdean: Olatz Azkondo, Xabier Agirre, Karlos Cambronell, Osane Jimenez eta Jordi Gomez.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

*Ikatza ez da
Gabon hauetan
jaso dezakezun
oparirik txarrena.*

CRISTINA

Arruriaga, 44. ☎ 76 03 04. Bergara.

*Gabon hauetan ez ezazu imitaziorik onartu.
Eros itzazu zure Levi's-ak bakarrik denda baimenduetan.*



Fotokopiak

Arruriaga 1, behea
☎ 76 58 16

- *Fotokopiak.*
- *Enkuadernazioak.*
- *Plastifikazioak.*
- *Planoen kopiak.*
- *Fax zerbitzua.*
- *Kautxozko zigiluak.*




KOLORETAKO LASER XEROX MAKINA



HAURRENTZAKO JOSTAILU HEZIGARRIAK

- *IRUDIAK KOLOREZTATZEN DITU.*
- *IRUDIAK ERREPIKATZEN DITU.*
- *DOKUMENTUAK HAUNDITU ETA TXIKITZEN DITU.*

ATEZ ATEKO ENPRESETAKO PAKETERIAN ESPEZIALISTAK



BERGARA (GIPUZKOA)

San Juan Erreka. Elgetara bidea.

Tfnoa: 76 36 42 - Faxa: 76 54 25.



GUPUZCOANA
Paketien gortia eta bonakero